

INMERSIONES

RE<IN>SISTENCIA

2014

OINARRIAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Art
Hum

Gaieknak



ASOCIACIÓN CULTURAL
INMERSIONES
KULTUR ELKARTEA



1. SARRERA

Botereari eta erresistentziari buruzko ideiak, bereziki erresistentzia sor-kuntza eta eraldaketa direla defen-datzen dutenak, eredugarri izan dira interbentzio artistiko askorentzat, eta artearen munduaren barruko ekin-tzaren aldeko printzipioak hezurma-mitzen dituzte. Aldiz, erresistentzia ez da ekintza heroiko bat. Hala ikusiko bagenu, seinale ez ginatekeela ondo ulertzen ari praktika artistikoari lotuta ikusten dugun konpromiso edo eran-tzukizunaren esanahia.

“Baztertuen areto”etatik abangoar-dia taldeetaraino, status quoari eran-tzutearen eta aurka egitearen ideari lotuta egon da artearen praktika. Egun, teoria praktika moduan uler-tzea ezin bestekoa da testuinguru garaikide honetan erresistentziaren ideia ulertzeko, arteen zeharkakota-suna ulertzea beharrezko bihurtzen den bezala. Zeharkakotasuna, izan

ere, toki ezin hobea da konkretua denari eragiteko, gure eguneroko testuinguruan ekiteko.

Inmersionesen, gure jarduera erre-sistentzia-ariketa eta tematze-lana dela ikusten dugu gero eta gehiago. Egiten dugun deialdi bakoitzean, bada berriz elkartzera, puntu komun bat eta “egiteko moduak” aurkitzera garamatzen egoskorkeria eta matra-ka puntu bat. Hor ikusten dugu guk geure burua talde moduan.

Horregatik beharbada, beti konek-tatu dugu espiritu hori partekatzen duten erresistentzia kultureko for-mekin, proiektu, ekimen edo lan-ildo bati lotzen zaizkionak, egokiera edo unean uneko zirkunstantzia zein den erreparatu gabe.

“Boterea dagoen tokian erresisten-tzia dago”. Ez dago erresistentzia “bat”, “erresistentziak” baizik, eta

bereziki kitzikagarria da “mikro-e-rresistentzi”en ideia. Ez dago erre-sistentzia forma “aratz” bat. “Erre-sistentziak” gizartetik dabilzan bizi energia motak dira, armatu eta desarmatzen direnak, beren burua adieraztera heldu edo hutsaltzen direnak. Haien taupadarik gabe, ezi-nezkoa kontserbazioa eta higiezia-ta bilatzen duten erreakzio inda-rron mehatxuari aurre egitea.

Bestalde, tematzeak rol garrantzi-tua du erresistentzia artikulatzeko orduan, behartzen baitu denboraren eta erritmoaren kudeaketa propio batean pentsatzera. Tematzen gara ere erresistentzia mota bat delako. Erresistentzian tematzea orainaren eta betikotutako iraganeko forma guztien “kontrako” orainaldiko ekin-tza bat da, etorkizunaren alde.

2. DEIALDIA

Inmersiones 2014 zuzenduta dago Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bizi, ikasi edo lan egiten duten kultura-, gizarte- eta arte-e-ragileei (sortzaileak, ikertzaileak, bitartekariak eta ekintzaileak). Par-te-hartzaile guztiek ekarri behar dute baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia bat (NAN, erroldatze ziurtagiria edo ikasle txartela).

Parte-hartzaile bakoitzak behar bezala beteta gehitu beharko du **modalitate bakoitzerako izena emateko fitxa erantsia (nahi beste modalitateetara aurkeztu ahal izan-go da).**

Deialdia egin nahi dugu Inmersione-sekin erresiste(ma)tuz parte hartzera, esperientziak, sinergiak eta ikaspe-nak partekatuz, erresistitu eta te-matzeko balio duten estrategiak eta taktikak sortuz, hiru modalitate-ren bidez: biltzarra, abegitsuak, eta pres-takuntza tailerretako parte-hartzea.



3. PARTAIDETZA MOTAK

ERAGILEEN BILTZARRA

(artistak, taldeak, sortzaileak, iker-tzaileak eta bitartekariak).

Talde eragileak "Inmersiones 2014"ren gaiekin erlazioa duen lanean diharduten **hamabi eragile hautatuko ditu gehienez**. Eragile horiek konpromisoa hartzen dute **2014ko abenduaren 13an** horretarako egokitutako espazioan artelanak aurkezpen publiko bat egiteko: ikusizko arteak edozein formatutan, performanceak, ekintzak, ekarpen teorikoak etab. Aurkezpen denbora gehienez 15 minutu izango da. Gainera, hizlari bakoitzak mahai-inguru batean parte hartuko du gero, eta eztabaida-jardunaldi osoan debate-taldean parte hartu beharko du.

Hautatutako eragile bakoitzak 250 euro jasoko ditu bere aurkezpeneren ordainetan.

Inmersiones 2014n parte hartu nahi baduzu, honatx: > Ponentziatarako: bidal egiguzu zure curriculum **azaroaren 16 arte** (gehienez 3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatuan), zure motibazioa eta zure proiektu edo artelanak proposatutako gaiarekin daukan erlazioa esplikatzen duen testu bat (3.000 karaktere; Word formatuan), aurkeztu behar duzun ponentziaren laburpen bat (3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatuan) eta zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp.) ondorengo helbide elektronikora: **asociacioninmersiones@gmail.com**. Adieraz egiguzu ere zure ponentziaren aurkezpenera egiteko zein ekipamendu behar duzun (antolakuntzaren kontura).

"HOSPITALARIOS"

Hemen, erakusketaren espazio bat egun osoz lagatzen zaio hautatutako artistari. Espazioan, onartutako proposamena aurkeztuko da, eta hautatutako artistak konpromisoa hartzen du egun osoz bertan egoteko, prozesu osoan, muntaketatik hasi eta erakusketarako bisitariei harrera egiteraino. Talde eragileak 4 Abegitsu hautatuko ditu abenduaren **9tik 12ra egin beharreko 2014ko** ediziorako.

Hautatutako lauretako bakoitzak 400 euro jasoko ditu erakusketa ekoizteko eta bere lanerako.

Inmersiones 2014 – Abegitsuak: Bidal egiguzu zure curriculum **azaroaren 16 arte** (3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatuan), zure motibazioa eta zure arte proposamenak proposatutako gaiarekin daukan erlazioa esplikatzen duen testu bat (3.000 karaktere; Word formatuan), eta zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp.) ondorengo helbide elektronikora: **asociacioninmersiones@gmail.com**



PRESTAKUNTZA TAILERRAK (erresiste(ma)tziaaren pedagogia)

2014. urte honetan, gure ustez, langile kulturalaren profila indartzeko erremintak ezagutu, ikasi eta partekatzea da erresistentziaren eta iraunkortasunaren indarraren gakoetako bat, tokatu zaigun garai honetan.

Horretarako, INMERSIONES 2014k Euskadiko eta Nafarroako artista hazkorrekin hartzen duen erantzukizunaren zati moduan, **abenduaren 11 eta 12an** bi tailer egitea proposatzen dugu:

DOSIER ARTISTIKOAK SORTZEKO TAILERRA

Gure ustez, ezin bestekoa da askotariko prozesu burokratikoetan murgiltzeko orduan dugun aurkezpen gutun erabilgarrienetako bat lantzea, artistek, kudeatzaileek eta ikertzaileek horrelakoei aurre egin behar izaten baitiote. Tailer honetan, arte-lan-dosier edo proiektu-dosier baten antolakuntza kontzeptual eta ikusizkoari buruzko oinarritzko tresna batzuk proposatuko ditugu. **VERÓNICA EGUARAS** arituko da arduradun lanetan (<http://www.veronicaeguaras.com>). Askotariko arloetako irakasle eta artista da (performancea, musika, ikus-entzunezkoak), baita hainbat beka eta sariren irabazlea ere, tartean dela 2008ko INJUVE arte plastikoen sari nazionala. Dosier bat sortzeari buruzko zalantzak eta gakoak mahai gaineratuko ditugu, gure bitartekoak ondo-ondo baliatuz instituzio publikoei eta pribatuei aurre egin ahal izateko.

ERRESISTENTZIARAKO MARRAZKETA TAILERRA

Marrazketa beti izan da errealitatea argazkilaritzak edo bideo bidezko dokumentazioak baino era adeitsua goan erregistratu edo interpretatzen duen tresna bat. Balio du edozein egoeratar hurbildu eta errealitatearen eta emozioaren konbinazio bat islatzeko momentuaren erretratu bat egiteko.

Horretarako, **ENRIQUE FLORES** izango da gurean (<http://www.4ojos.com/>), El Paíseko ohiko ilustratzailea, hainbat argitalpenen sortzailea eta, oraindik orain, bere arkatzen eta akuarelen bidez M15 ondoren sortutako gizarte mugimenduei egindako ekarpenagatik ezaguna. Bere libretak manifestazioen, borroken eta asanbladen lekuko bihurtu ditu. Enriquek, bere lanaren bidez, diziplina hau lantzeko bere metodoak eta tresnak erakutsiko dizkigu, baita

arriskuak eta onurak ere. Kanpora ateraldi bat egin ondoren, ikastaroan erakutsitako gakoak praktikan jarriko ditugu.

Tailerretan parte hartzeko, bidal egiguzu zure curriculum **azaroaren 16 arte** (3.000 karaktere hutsuneak barne; Word formatuan), zure motibazioa eta gaiarekin daukazun erlazioa esplikatzen duen testu bat (3.000 karaktere; Word formatuan), eta zure lanaren bost irudi (JPG, RGB, 72 ppp) ondoren go helbide elektronikora: **asociacioninmersiones@gmail.com**